

## **DATUAK BABESTEKO ESPAINIAKO BULEGOAREN GOMENDIOAK, IKASTETXEETAKO BIDEO-ZAINTZA SISTEMEI BURUZ**

Gaur egun ikastetxe askotan bideo-zaintza sistemak jartzen dira pertsonen eta instalazioen segurtasuna bermatzeko, eta joera hori gorantz doa.

Ikastetxeek eta hezkuntza-arloko administrazioek bideo-zaintza kamerak jartzen dituzte pertsonen eta instalazioen segurtasuna eta integritatea zaintzeko, eta interes hori zilegi da, baina kasu horretan datu pertsonalak babesteko araudia bete behar da, ikasleen, irakasleen, senideen eta beste batzuen datuak erabiltzen baitira horrelakoetan.

Sistema horiek pertsonen intimitatean sartzen dira eta, ondorioz, printzipio batzuk kontuan izan behar dira: beharrezkoa egon behar da, lortu nahi diren helburuak lortzeko egokia izan behar da (beste modu batera lortu ezin diren helburuak izanik) eta proportzionala da (kalteak baino onura gehiago dakartza). Adibidez, sistema horiek jartzen ez badira kalte materialak, lapurretak eta ebasketak gerta daitezkeela arrazoi bat denean, eskolarik gabeko orduetan bakarrik graba dezakete kamerek. Horrela, pertsonen pribatutasunerako eragina murriztu egingo litzateke.

### **Ikastetxeko instalazio guztietan jar daitezke bideo-zaintzako kamerak?**

Ez, instalazio guztietan ez. Bideo-zaintza sistemak ezin dira jarri komunitan, aldageletan edo irakasleen nahiz langileen atsedenerako eremuetan, kamerek hartzen dituzten irudiekin pertsonen (irakasleen, irakasleen eta bestelakoen) intimitatean sartzen baita.

### **Ikasgeletan bideo-zaintzako kamerak jar daitezke, gatazkak izan daitezkeela azalduz?**

Neurrigabea izango litzateke, eskolak ematen direnean irakaslea egotea nahikoa da eta. Ikasleen pribatutasunean sartzeaz gainera, irakasleen lan-kontrol neurrigabea ere izan daiteke.

Eskolarik gabeko orduetan eta gelak hutsik daudenean aktibatu daitezke bideo-zaintzako mekanismoak, ikasleak babesteko eta instalazio eta materialetan kalterik ez gertatzeko.

### **Jolastokietan eta jantokietan bideo-zaintzako kamerak jar daitezke?**

Bai, baldin eta interes nagusia adingabea babestea bada eta adingabeen osotasun fisikoa, psikologikoa eta emozionala arriskuan jar dezaketen gertaerak izateko moduko tokietan jartzen badira; hori gorabehera, helduen agerpen-kontrola bezalako beste neurri batzuk har daitezke.

### **Bideo-zaintza sistemak jarri direla jakinarazi behar da?**

Bai. Kamerak jartzen diren tokietan bereizgarriren bat jarri behar da, ikusteko moduko toki batean.

Horrez gain, araudiak ezartzen dituen baldintzen berri ematen duen klausula bat ere jarri behar da.

(Iturria: Datuak Babesteko Espainiako Bulegoaren gida, ikastetxeetarako)